


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 jaitsi ziren 2007ko abenduan

2007. urte osoan %3,5 igo dira eraikuntzako kostuak

2007ko abenduan, eta azaroarekin alderatuta, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 jaitsi zen EUSTATen datuen arabera. 2007. urte osoko tasak %3,5eko igoera izan zuen 2006ko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2006ko abendutik, 2007ko abendura), lan-eskuaren kostua %4,2 handitu da eta lehengaien kostuak, berriz, %3,2.

Abenduan Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Eraikuntzaren atalean %0,2ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilaren atalean lehengaien kostuak %0,4 jaitsi ziren. Azpisektore bien urteko bilakaeran ikusten denez, biek gora egin dute baina indar ezberdinez: Eraikuntzako lehengaien kostuak %2,8 hazi ziren, eta Obra zibilekoak, berriz, %4,7.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2007an hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: petroliotik eratorritakoak (%23,5), beira (%20,4), asfalto-produktuak (%16,6) eta zementu artifiziala (%6,9) lehengaiak. Aitzitik, urteko prezioetan (2007ko abendua, 2006ko abenduaren gainean), murrizketak izan dituzte: *burdina eta altzairua* (%-1,7); *egiturak eta galdaragintza* (%-1,4); *laneko arropak* (%-1,3) eta *energia elektrikoa* (%-0,4) lehengaiak.

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko abendua.

GOIBURUAK	INDIZEA 2000 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduen aldean
KOSTUA GUZTIRA	131,1	-0,2	3,5	3,5
ERAIKINAK	130,9	-0,1	3,2	3,2
OBRA ZIBILA	131,9	-0,2	4,5	4,5
LEHENGAIEN KOSTUA	128,0	-0,2	3,2	3,2
ERAIKINAK	127,9	-0,2	2,8	2,8
OBRA ZIBILA	128,4	-0,4	4,7	4,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	138,3	0,0	4,2	4,2

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp